

**LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA****TEST-GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRA)**

- 1. PRINTZIPIO HAUETAKO BAT EZ DU BERMATZEN KONSTITUZIOAK. ZEIN?**
  - a. Atzeraeragin ezaren printzipioa.
  - b. Arauen publizitatearen printzipioa.
  - c. Erregelamenduen arteko hierarkiaren printzipioa.
  - d. Legezketasun printzipioa.
  
- 2. NOREN AURREAN AURKEZTEN DA BABES ERREKURTSOA?**
  - a. Edozein epaitegi edo auzitegiren aurrean.
  - b. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean.
  - c. Konstituzio Auzitegiaren aurrean.
  - d. Auzitegi Gorenaren aurrean.
  
- 3. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK EZ DITU LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMEN ESKLUSIBOTZAT EZARTZEN:**
  - a. Udaletako hauteskunde araubidea.
  - b. Foru aldundietako hauteskunde araubidea.
  - c. Probintzia eta udaletako ondasunen araubidea.
  - d. Probintzia mugak gainditzen ez dituzten udalerriaz gaindiko lurralde mugaketak.
  
- 4. EUSKAL HERRIA OSATZEN DUEN LURRALDE HISTORIKOETAKO BAKOITZAK:**
  - a. Estatistikak egin ahal izango ditu, Autonomia Erkidegoko Estatistika Plana sustatzeko.
  - b. Autogobernuko bere antolaera eta erakunde propioak manten ditzake edota, hala badagokio, haiek berrezarri eta eguneratu, betiere Erkidegoaren baitan.
  - c. Euskararen arloko legeak egin ahal izango ditu.
  - d. Salgaien eta bidaiarien garraioa antolatu ahal izango du.
  
- 5. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, GAI HAUETAKO ZEIN DIRA AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMEN ESKLUSIBOA?**
  - a. Foru Organoen hauteskunde arauak, antolamendua, araubidea eta funtzionamendua.
  - b. Obra eta Zerbitzuen Foru Plana prestatu eta onartzea, eta Tokiko Erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea.
  - c. Autogobernatzeko erakundeen antolamendua, araubidea eta funtzionamendua, betiere Estatutu honen arauen barruan.
  - d. Ingurumena eta ekologia.

**6. EZ DA UDALERRIAREN OSAGAI BAT:**

- a. Lurraldea.
- b. Biztanleria.
- c. Udala.
- d. Antolaketa.

**7. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, GOI ORGANOK DIRA:**

- a. Alkatea, alkateordeak, zinegotziak eta Udalbatza.
- b. Alkatea eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideak.
- c. Alkatea, zinegotziak eta Udalbatzako idazkari nagusia.
- d. Alkatea, zinegotziak, Udalbatzako idazkari nagusia eta udaleko kontu-hartzaile nagusia.

**8. AUREKONTU, KONTABILITATE, DIRUZAINZTA ETA DIRU BILKETAKO EGINKIZUNAK BETEKO DITU:**

- a. Zerga kudeaketako organoak.
- b. Kontrolaren eta barruko ikuskapenaren organo arduradunak.
- c. Udal erregelamendu organikoan zehaztutako organoak edo organoek.
- d. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak erabakitzeko organoak.

**9. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOK DIRA:**

- a. El Alkatea.
- b. Gobernu Batzordearen Bulegoko titularra.
- c. Gobernu Batzordeko kideak.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**10. BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN ARABERA, HORREN JARDUNAK OINARRITZAT IZANGO DITU:**

- a. Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, hierarkiaren eta doakotasunaren printzipioak.
- b. Independentzia teknikoaren, azkartasunaren eta doakotasunaren printzipioak.
- c. Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, azkartasunaren eta doakotasunaren printzipioak.
- d. Independentzia teknikoaren, eraginkortasunaren, espezialitatearen eta doakotasunaren printzipioak.

**11. BILBOKO HIRI KONTSEILUA:**

- a. Hiriko gobernuaren kontsultarako eta eztabaidarako organoa da.
- b. Hiriko gobernuaren partaidetzarako eta integraziorako organoa da.
- c. Barruti Kontseiluen kontsultarako eta partaidetzarako organoa da.
- d. Hiriko gobernuaren izaera organikoko eta kontsultarako organoa da.

**12. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:**

- a. Udalbatzak eskuordetutako eginkizun politiko, administratibo eta betearazleak beteko ditu.
- b. Legearen arabera dituen eginkizun betearazle eta administratiboak beteko ditu.
- c. Udalbatzak eskuordetutako eginkizun tekniko, politiko eta administratiboak beteko ditu.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**13. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUEK DIRA PROZEDURA AMAITZEKO AUKERAK:**

- a. Ebazpena eta atzera egitea.
- b. Gerora sortutako arrazoiengatik prozedurarekin jarraitzea materialki ezinezkoa izatea. Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.
- c. Eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu–, eta iraungitzat deklaratzeko.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**14. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 21. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EBAZPEN ESPRESUA JAKINARAZTEKO EPEA, PROZEDURAK ARAUTZEN DUEN ARAUA BALDIN BADU BAINO EZ BADU EPEA FINKATZEN?**

- a. Dagokion prozedura arautzeko arauak ezarritako epea.
- b. 3 hilabeteko epea.
- c. 6 hilabeteko epea.
- d. Urtebeteko epea.

**15. BERRIKUSPEN-ERREKURTSO BEREZIA SOILIK EGIN DAITEKE:**

- a. Administrazio-bidean irmoak diren egintzen aurka.
- b. Administrazio-bidea amaitzen duten egintzen aurka.
- c. Izapide-egintzen aurka, hauek gaiari buruzkoak badira.
- d. Gora jotzeko errekurtsoen ebazpenen aurka.

**16. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, BI HIZKUNTZETAN IDATZITA EGON BEHARKO DU:**

- a. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok.
- b. Bide publikoko trafikoko seinale eta ikur orok.
- c. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri-agintariek erabiltzeko eredu ofizial orok.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

## DEIALDIA: ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZOKO TEKNIKARIA

**17. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982 LEGEA), HELDUENTZAKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA ETA EUSKALDUNEN ALFABETATZEA SUSTATUKO DITU EUSKO JAURLARITZAK , ETA, HORRETARAKO:**

- a. Merkataritzako sozietate publiko bat sortuko du.
- b. Enpresa-entitate publiko bat sortuko du.
- c. Ente publiko bat sortuko du.
- d. Aurreko erantzunen artean bat ere ez da zuzena.

**18. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKARA ERABILTZEKO ESKUBIDEAK GAUZATZEKO HERRI-AGINTEEK:**

- a. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria mantso euskalduntzeko neurriak hartuko dituzte.
- b. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.
- c. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria euskalduntzea finkatzeko neurriak hartuko dituzte.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**19. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA EZARTZEN ZAIE:**

- a. Merkataritza-sozietateei, langilerik izan ez arren.
- b. Ondarezko sozietateei, langilerik izan ez arren.
- c. Kooperatiba-sozietateei, lan pertsonala egiten duten bazkideak badituzte.
- d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**20. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO ARLOKO POLITIKAK HONAKOEN PARTE HARTZEAREKIN EGINGO DIRA:**

- a. Enpresaburuak.
- b. Langileak.
- c. Autonomia erkidegoko enpresa-erakundeak eta sindikatuak.
- d. Enpresaburuak eta langileak.

**21. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, PREBENTZIO-ZERBITZUA ERATZEKO ENPRESABURUAK IZENDATUTAKO LANGILEEK:**

- a. Izan beharko dituzte behar besteko gaitasuna, denbora eta tresneria egokia eta behar beste izan beharko dira.
- b. Enpresaburuak ahalbidetu beharko du izendatutako langileek eskura izatea beharrezko informazioa eta agiriak.
- c. Ezin izango dute inolako galerarik jasan, lanbide-arriskuak babesteko eta prebenitzeko enpresan duten jardueren ondorioz.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

## DEIALDIA: ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZOKO TEKNIKARIA

**22. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DIRA PREBENTZIO-NEURRI BEREZIRIK IZAN EZEAN ARRISKUAK ERAGITEN DITUZTEN PROZESU, JARDUERA, ERAGIKETA, EKIPAMENDU EDO PRODUKTUAK, HALAKOAK GAUZATZEN EDO ERABILTZEN DITUZTEN LANGILEEN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO:**

- a. Laneko prebentzioak.
- b. Prebentziorako berariazko babesak.
- c. Arriskutsuak izan daitezkeenak.
- d. Lanetik eratorritako kalteak.

**23. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ESALDI HAUETATIK ZEIN DA OKERRA?**

- a. Pertsona juridiko diren interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.
- b. Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea izan ezik.
- c. Interesdunek eskubidea izango dute tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beraiengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.
- d. Esaldi guztiak dira okerrak.

**24. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAK BAIMENA EMATEN DIE IRUDIAK TRATATZEKO, KAMERA EDO BIDEOKAMARA SISTEMEN BIDEZ, PERTSONEN ETA ONDASUNEN NAHIZ INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ZAINTEZKO, HAUEI:**

- a. Soilik dagokion erregistroan behar bezala identifikatutako pertsona fisikoei.
- b. Soilik pertsona juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.
- c. Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak, nahiz eta bide publikoko irudiak hartzea soilik erakunde publikoei mugatuta dagoen.
- d. Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.

**25. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN SEKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ARAU-HAUSTE LARRITZAT HARTZEN DA:**

- a. Informazioaren gardentasun printzipioa edo eragindakoaren informaziorako eskubidea ez betetzea, eskatutako informazio guztia ez emateagatik.
- b. Adingabe baten datuak tratatzea haren adostasuna lortu gabe, orretarako gaitasuna duenean.
- c. Tratamendu-jardueren erregistroa ez jartzea hala eskatu duen datuen babeserako agintaritzaren eskura.
- d. Datuen babeserako ordezkari bat ezartzeko betebeharra ez betetzea, hala egitea eskatu dakiokenean.

**26. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, DATU PERTSONALAK:**

- a. Egokiak, beharrezkoak eta mugatu gabeak izango dira, haien tratamenduaren helburuen arabera.
- b. Haien tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, interesdunari dagokionez.
- c. Zehatzak eta, ebazpen judizial batek hala eskatuz gero, eguneratuak izango dira.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**27. SEKTORE PUBLIKO KONTRATATZAILEAREN ENTITATEAK ZEHAZTUTAKO BETEBEHARRAK BETETZEN DITUEN OBRA BAT EDOZEIN BITARTEKOREN BIDEZ EGITEA XEDE DUTEN KONTRATUAK:**

- a. Obra-kontratuak dira.
- b. Obra-emakida kontratuak dira.
- c. Zerbitzu-emakida kontratuak dira.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**28. KONTRATU TXIKIAK:**

- a. Ezin izango zaizkio inoiz zuzenean esleitu jarduteko ahalmena duen ezein enpresariri.
- b. Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari ez nazionaleri.
- c. Ezin izango zaizkie inoiz zuzenean esleitu enpresari espainiarrak ez badira edo Europar Batasuneko naziotasunik ez badute.
- d. Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

**29. MARKATU ERANTZUN OKERRA:**

- a. Eliza ez da jotzen esleitzeko gaitutzat Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
- b. Alderdi politikoak botere esleitzzaileak dira Sektore Publikoko Legearen xedeetarako.
- c. Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak ez dira botere esleitzzaileak.
- d. Foru aldundiak sektore publikoaren partetzat joko dira beren kontratazio jarduerari dagokionez.

## DEIALDIA: ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZOKO TEKNIKARIA

**30. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN BEREN GIZA BALIABIDEEN ORDENAZIORAKO PLANAK ONARTU AHAL IZANGO DITUZTE, HONAKO NEURRI HAUEK DAUZKATELA, BESTEAK BESTE:**

- a. Langileen baliabideen eta beharren azterketa, hala langile kopuruaren ikuspegitik nola horien soslai profesionalei edo prestakuntza maila dagokienez.
- b. Lan-antolaketako sistemei eta lanpostuen egituren aldaketei buruzko aurreikuspenak.
- c. Mugikortasuneko neurriak, horien artean izan daitekeelarik esparru jakin batetik kanpoko langileen sarbidea etetea edo zehaztutako esparruetara mugatutako lanpostuen hornikuntzarako lehiaketetarako deialdiak egitea.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**31. ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN BETEARAZPENA EPE HONETAN GAUZATU BEHARKO DA:**

- a. 2 urte gehienez.
- b. Urtebete gehienez.
- c. 3 urte gehienez.
- d. 30 hilabete gehienez.

**32. EPOETB-EN ARABERA, ZER KUDEAKETA TRESNAREN BIDEZ AURREIKUSI AHAL IZANGO DITUZTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN LANGILEAK HARTZEKO AUKEREN ETA BEHARREN AZTERKETAK?**

- a. Enplegu Publikorako Eskaintzaren bidez.
- b. Giza baliabideen antolamendu Planen bidez.
- c. Lanpostuen Zerrenden bidez.
- d. Langileen birbanaketaren bidez.

**33. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, TOKI-KORPORAZIOENTZAT LANGILEEN ERREGISTROAK ERATZEA:**

- a. Borondatezkoa da.
- b. Nahitaezkoa da.
- c. Nahitaezkoa da Biztanleria Handiko Udalerrientzat soilik.
- d. Nahitaezkoa da 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrientzat soilik.

**34. ZER ORGANORI DAGOKIO ARAUBIDE ERKIDAKO UDALERRIETAN AUKERAKETARAKO PROBAK ETA LANPOSTUEN HORNIDURARAKO LEHIAKETAK ZUZENTZEN DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, BAI ETA PROBA ETA LEHIAKETA HORIETARAKO DEIALDIA EGITEA ERE?:**

- a. Udalbatzari.
- b. Tokiko Gobernu Batzarrari.
- c. Alkateari.
- d. Tokiko Gobernu Batzarrari aukeraketarako probak eta lanpostuen hornidurarako lehiaketak zuzentzen dituzten oinarriak onartzea, eta Tokiko korporazioaren Presidenteari proba eta lehiaketa horietarako deialdia egitea.

**35. TOKI ADMINISTRAZIOAN LAN EGITEN DUTEN GAIKUNTZA NAZIONALIK GABEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOAK ESKALA HAUETAN DAUDE INTEGRATUTA:**

- a. Administrazio Orokorrekoa eta Administrazio Berezikoa.
- b. Teknikoa, Kudeaketakoa, Administraziokoa, Laguntzailea eta Mendekoa.
- c. Teknikoa eta Zerbitzu Berezietakoa.
- d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**36. AURREKONTU OROKORRAK DIRA TOKI ERAKUNDEEK AURREKONTU ETA EKONOMIA EKITALDI BAKOITZEAN BETEARAZI BEHARREKO EKONOMIA JARDUERAREN ZUZENDARITZA PROGRAMA OSATZEN DUTEN ERABAKIEN MULTZO INTEGRATUAREN ADIERAZPEN FORMAL DOKUMENTALA, BALDINTZA HAUETAN EGINA...**

- a. ...zergazkoak.
- b. ...finantzarioak eta kontabilitatekoak.
- c. ...urbanistikoak.
- d. ...gardentasunezkoak.

**37. TOKI ERAKUNDEAREN ADMINISTRAZIOAREN KARGURAKO KOPURUEN ORDAINKETA BETEBEHARRAK SOILIK ESKATU AHAL IZANGO DIRA...**

- a. ...haren aurrekontuen betearazpenetik, ebazpen judizial irmotik eta aurrekontuez aparteko eragiketetatik sortzen badira.
- b. ...haren aurrekontuen betearazpenetik eta aurrekontuez aparteko eragiketetatik sortzen badira.
- c. ...haren aurrekontuen betearazpenetik sortzen badira.
- d. ...haren aurrekontuen betearazpenetik eta ebazpen judizial irmotik sortzen badira.

**38. UDALERRI BATEKO BIZTANLEEK ERREKLAMAZIOAK FORMULATU AHAL IZANGO DIZKIETE UDALBATZAK ONETSITAKO KREDITU GEHIGARRIKO ESPEDIENTEEI ERAKUSKETA PUBLIKOKO ALDIAN...**

- a. ...zuzenean eragiten badiete.
- b. ...kasu guztietan.
- c. ...Errenta-adierazlearen % 33tik gorako zergak ordaintzen baldin badizkiote udalerriri.
- d. ...kreditu eskubideen jabe baldin badira udalerraren aurrean.

**39. UDAL ORDENANTZAK ONESTEKO ARDURA DU:**

- a. Tokiko Gobernu Batzarrak, kasu guztietan.
- b. Udalbatzak, kasu guztietan.
- c. Tokiko Gobernu Batzarrak araubide erkideko udalerrietan eta Udalbatzak Biztanleria Handiko Udalerrietan.
- d. Udalbatzak araubide erkideko udalerrietan eta Tokiko Gobernu Batzarrak Biztanleria Handiko Udalerrietan.



**40. UDAL ORDENANTZA BATEN AURKAKO BIDEZKO ERREKURTSOA ZERA DA:**

- a. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
- b. Berraztertze errekurtsoa.
- c. Gora jotzeko errekurtsoa.
- d. Berrikusteko aparteko errekurtsoa.

**41. TOKIKO ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALAK HASIKO DIRA APLIKATZEN:**

- a. Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnetik 15 egun naturaletara.
- b. Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnetik 15 egun balioudunetara.
- c. Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen direnean.
- d. Probintziako Aldizkari Ofizialean, edo, hala egokitzen den kasuetan, probintzia bakarreko Autonomia Erkidegokoan, behin betiko argitaratzen diren unean, Ordenantza fiskaletan beretan beste data bat adierazten ez baldin bada.

**42. ARARTEKO IZATEA BATERAEZINA DA HONAKO HONEKIN:**

- a. Herri-aukeraketaren ondoriozko ordezkartzako agintaldi oro.
- b. Izendapen libreko edozein kargu politiko.
- c. Alderdi politiko, sindikatu edo ugazaben elkarte bateko afiliazioa.
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**43. HERRIAREN DEFENDATZAILEAREN AURREAN KEXA ANONIMOA AURKEZTEN BALDIN BADA:**

- a. Izapidetu egin beharko du.
- b. Kontua interes orokorrekoa baldin bada baino ez du izapidetuko.
- c. Ez dago izapidetzera behartua.
- d. Haren esku uzten da izapidetu edo ez erabakitzea.

**44. HONAKO HAUETAKO ZEIN DA ERAGOZPENA HERRITAR BATEK ARARTEKOARENGANA JOTZERIK EZ IZATEKO?**

- a. Naziotasuna.
- b. Adingabetasuna.
- c. Espetxeratuta egotea.
- d. Aurrekoetako bakar bat ere ez.

## DEIALDIA: ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZOKO TEKNIKARIA

**45. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN 10. ARTIKULUAREN ARABERA, ESKUMEN HAUETAKO ZEIN DA ESTATUAREKIN PARTEKATUA?**

- a. Toki Araubidea.
- b. Zuzenbide Zibila.
- c. Mendiak.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**46. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAGOEN ONDARE HISTORIKO, ARTISTIKO, MONUMENTAL, ARKEOLOGIKO ETA ZIENTIFIKOAREN ESKUDUNTZA:**

- a. Estatuarena da eskusiboki.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoarena da eskusiboki.
- c. Estatuko legeria betearaztekoa da.
- d. Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**47. KONSTITUZIOAREN 149.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ADIERAZI ZER GERTATUKO DEN AUTONOMIA ERKIDEGOEK BEREGANATU EZ DITUZTEN GAIEKIN.**

- a. Bost urteko epean bereganatu ahal izango direla autonomia erkidegoa eratzten denetik, Senatuaren alde aurreko baimenarekin.
- b. Eskumena Estatuarena izango dela, eta haren arauak nagusituko direla, gatazkarik izatekotan, autonomia erkidegoen arauen aurrean, haiek eskumen eskusiboa ez duten guztian.
- c. Estatuari egokituko zaizkiela osagarri gisa.
- d. Edozein unetan bereganatu ahal izango direla Estatuaren oinarrizko arautegiarekiko gatazkarik izan ezean.

**48. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOARI DAGOKIONEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN HAU EK IZANGO DITU BERE LURRALDEAN:**

- a. Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoei Gobernuari aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.
- b. Botere Judizialaren eta Mugape eta Planta Judizialaren Lege Organikoei autonomia erkidegoei aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.
- c. Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoei autonomia erkidegoei aitortu, erreserbatu edo esleitutakoak.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**49. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK 35. ARTIKULUAK XEDATZEN DU MAGISTRATU, EPAILE ETA IDAZKARIEN IZENDAPENA HONAKO HAUETAN XEDATUTAKO MODUAN EGINGO DELA:**

- a. Autonomia Estatutuan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan.
- b. Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoetan.
- c. Konstituzioan, Autonomia Estatutuan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan.
- d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**50. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUKO FISKAL NAGUSIA HONEK IZENDATUKO DU:**

- a. Erregeak.
- b. Gobernuak.
- c. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.
- d. Justizia Ministerioak.

**ERRESERBAKO GALDERAK****51. ESKEA EGITEKO ESKUBIDEA:**

- a. Konstituzioaren 30. artikuluan dago jasota, eta espainiar guztien onurarako dago aitortuta.
- b. Banaka erabili ahal izango da.
- c. Idatziz erabili ahal izango da, paper tinbratua erabilia.
- d. Ezin izango da taldean erabili.

**52. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 6. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREK**

- a. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko eskubidea dute.
- b. Gaztelania eta euskara jakin eta erabiltzeko betebeharra dute.
- c. Gaztelania eta euskara jakiteko eskubidea eta erabiltzeko betebeharra dute.
- d. Gaztelania eta euskara jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dute.

**53. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN 128. ARTIKULUAREN ARABERA, BARRUTIAREN LEHENDAKARITZA NOLANAHI ERE DAGOKIO:**

- a. Alkateari.
- b. Tokiko Gobernu Batzarrari.
- c. Udalbatzari.
- d. Zinegotzi bati.

**54. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NOIZ ERABAKI DEZAKETE PERTSONA FISIKOEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ KOMUNIKATZEA BEREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK BALIATZEKO?**

- a. Prozedura antolatzeko faseak irauten duen bitartean.
- b. Instrukzioa amaitu baino lehen.
- c. Entzunaldiaren izapidea egin baino lehen.
- d. Noiznahi.

**55. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA,**

- a. La Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala soilik gaztelania da idatzizko administrazio jakinarazpenetarako.
- b. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala soilik euskara da idatzizko administrazio jakinarazpenetarako.
- c. Herri agintariek beharrezko neurriak hartu dituzte eta zainduko dute, Euskal Herriko hizkuntza propioa eta ofiziala euskara izan dadin.
- d. Euskal Herriko hizkuntza propioa euskara da.

**56. ERREGULAZIO HARMONIZATURA LOTUTAKO KONTRATUEI DAGOZKIEN PROZEDURA MURRIZTUETAN, PROPOSAMENEN AURKEZPEN EPE OROKORRA NAHIKOA IZANGO DA PROPOSAMENAK KONTRATUAREN IRISMENAREN ETA KONPLEXUTASUNAREN ARABERA LANTZEKO:**

- a. Edozein kasutan ere ez da izango hogeita bost egun baino gutxiagokoa.
- b. Edozein kasutan ere ez da izango laurogei egun baino gutxiagokoa.
- c. Edozein kasutan ere ez da izango laurogeita hamar egun baino gutxiagokoa.
- d. Edozein kasutan ere ez da izango hogeita hamar egun baino gutxiagokoa.

**57. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRI BATEAN, ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HONEK ONETSI BEHAR DU:**

- a. Udalbatzak.
- b. Langile Batzordeak.
- c. Alkateak.
- d. Tokiko Gobernu Batzarrak.

**58. UDALERRIETAN, LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEKO ESKUDUNTZA DUEN ORGANOA DA:**

- a. Udalbatza, kasu guztietan.
- b. Udalbatza Araudi erkideko udalerrietan eta Tokiko Gobernu Batzarra Biztanleria Handiko Udalerrietan.
- c. Tokiko Gobernu Batzarra, kasu guztietan.
- d. Tokiko Gobernu Batzarra Araudi erkideko udalerrietan eta Udalbatza Biztanleria Handiko Udalerrietan.

**59. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ZEIN ALDIZKAKOTASUNEZ EGIN BEHAR DUTE PUBLIKO UDALERRIEK HURRENGO URTEAN ONARTZEKO JASOKO DIREN EKIMEN ARAUTZAILEAK DAUZKAN PLAN BAT?**

- a. Hiru hilabetetik behin.
- b. Sei hilabetetik behin.
- c. Urtero.
- d. Udallerriak ez daude Plan Arautzaileak egitera behartuta.

**60. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZEIN DA AUZITEGIEN ANTOLAMENDUAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN OINARRIA?**

- a. Jurisdikzio batasunaren printzipioa.
- b. Justiziaren independentziaren printzipioa.
- c. Legezotasun printzipioa.
- d. Kontraesan printzipioa.

Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO

1. ABIZENA / 1<sup>er</sup> APELLIDO  
LEP 2022 EGONKORTZEA (OPOSIZIO LEHIKETA)


2. ABIZENA / 2<sup>o</sup> APELLIDO  
ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO

IZENA / NOMBRE NAN / DNI

DATA / FECHA KIDEGO EDO LANPOSTUA / CUERPO O PLAZA

NAN / DNI											
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9	9

SINADURA / FIRMA



Sinatu laukitik atera gabe / Firmar sin salir del cuadro

MARKATZE ARGIBIDEAK  
INSTRUCCIONES DE MARCADO



honeja ez markatu  
asi no marque

• - ○ X /

Azterketa eredu / Modelo de examen A ○ B ○

1	A	B	C	D	EZEZT.	21	A	B	C	D	EZEZT.	41	A	B	C	D	EZEZT.	61	A	B	C	D	EZEZT.	81	A	B	C	D	EZEZT.
2	A	B	C	D	ANULAR	22	A	B	C	D	ANULAR	42	A	B	C	D	ANULAR	62	A	B	C	D	ANULAR	82	A	B	C	D	ANULAR
3	A	B	C	D	EZEZT.	23	A	B	C	D	EZEZT.	43	A	B	C	D	EZEZT.	63	A	B	C	D	EZEZT.	83	A	B	C	D	EZEZT.
4	A	B	C	D	ANULAR	24	A	B	C	D	ANULAR	44	A	B	C	D	ANULAR	64	A	B	C	D	ANULAR	84	A	B	C	D	ANULAR
5	A	B	C	D	EZEZT.	25	A	B	C	D	EZEZT.	45	A	B	C	D	EZEZT.	65	A	B	C	D	EZEZT.	85	A	B	C	D	EZEZT.
6	A	B	C	D	ANULAR	26	A	B	C	D	ANULAR	46	A	B	C	D	ANULAR	66	A	B	C	D	ANULAR	86	A	B	C	D	ANULAR
7	A	B	C	D	EZEZT.	27	A	B	C	D	EZEZT.	47	A	B	C	D	EZEZT.	67	A	B	C	D	EZEZT.	87	A	B	C	D	EZEZT.
8	A	B	C	D	ANULAR	28	A	B	C	D	ANULAR	48	A	B	C	D	ANULAR	68	A	B	C	D	ANULAR	88	A	B	C	D	ANULAR
9	A	B	C	D	EZEZT.	29	A	B	C	D	EZEZT.	49	A	B	C	D	EZEZT.	69	A	B	C	D	EZEZT.	89	A	B	C	D	EZEZT.
10	A	B	C	D	ANULAR	30	A	B	C	D	ANULAR	50	A	B	C	D	ANULAR	70	A	B	C	D	ANULAR	90	A	B	C	D	ANULAR
11	A	B	C	D	EZEZT.	31	A	B	C	D	EZEZT.	51	A	B	C	D	EZEZT.	71	A	B	C	D	EZEZT.	91	A	B	C	D	EZEZT.
12	A	B	C	D	ANULAR	32	A	B	C	D	ANULAR	52	A	B	C	D	ANULAR	72	A	B	C	D	ANULAR	92	A	B	C	D	ANULAR
13	A	B	C	D	EZEZT.	33	A	B	C	D	EZEZT.	53	A	B	C	D	EZEZT.	73	A	B	C	D	EZEZT.	93	A	B	C	D	EZEZT.
14	A	B	C	D	ANULAR	34	A	B	C	D	ANULAR	54	A	B	C	D	ANULAR	74	A	B	C	D	ANULAR	94	A	B	C	D	ANULAR
15	A	B	C	D	EZEZT.	35	A	B	C	D	EZEZT.	55	A	B	C	D	EZEZT.	75	A	B	C	D	EZEZT.	95	A	B	C	D	EZEZT.
16	A	B	C	D	ANULAR	36	A	B	C	D	ANULAR	56	A	B	C	D	ANULAR	76	A	B	C	D	ANULAR	96	A	B	C	D	ANULAR
17	A	B	C	D	EZEZT.	37	A	B	C	D	EZEZT.	57	A	B	C	D	EZEZT.	77	A	B	C	D	EZEZT.	97	A	B	C	D	EZEZT.
18	A	B	C	D	ANULAR	38	A	B	C	D	ANULAR	58	A	B	C	D	ANULAR	78	A	B	C	D	ANULAR	98	A	B	C	D	ANULAR
19	A	B	C	D	EZEZT.	39	A	B	C	D	EZEZT.	59	A	B	C	D	EZEZT.	79	A	B	C	D	EZEZT.	99	A	B	C	D	EZEZT.
20	A	B	C	D	ANULAR	40	A	B	C	D	ANULAR	60	A	B	C	D	ANULAR	80	A	B	C	D	ANULAR	100	A	B	C	D	ANULAR